

Egungo Euskararen Hiztegia

—W—

[bertsioa: 2024-01-09]

wagneriano *izond wagneriarra*.

Beste guztiak ere (oso **wagnerianoak** ahotsetan eta itxuretan) ederki, emakumeak gizonak baino hobeto. **Berria - Kultura**

wagneriar *izond R. Wagnerrena, Wagnerri dagokiona*.

Meier sopranoak mezzoaren ahotsa baino erregistro zabalagoa du, eta teknika handiko abeslari **wagneriar** espezializatua da. **Berria - Kultura**

Wagner iraultzailearen aintzindaritzat jantzi zen Bruckner sinfonia honetan, lau tuba **wagneriar** gaineratzen. **Berria - Kultura**

Arrakastaren zioak baliabideen osotasunean dautza: oso abeslari finak, orkestra zein abesbatzak **wagneriarrak** eurak, eszenografia egokia eta eskarmentuko zuzendariak.

Berria - Kultura

wagnerismo *iz R. Wagnerren teknikan oinarrituriko musika-sistema*.

'Ez zait **wagnerismo** eskultoriko hori gustatzen,' esan dit. **Joseba Sarrionandia**

wahabi *(orobat uahabi) izond wahabita*.

Osama bin Laden musulman **uahabia** da, baita Irailaren 11ko erasogile gehienak ere. **Berria - Mundua**

Sherard Cowper Colesek ohartarazi du oso litekeena dela eraso gehiago izatea erreinu **uahabian**. **Berria - Mundua**

wahabismo *(orobat uahabismo) iz Muhammad Ibn Abd al-Uahhab (1703-1792) buru erlijiosoaren doktrina, Islamaren interpretazio literal eta puritanoan oinarritzen dena*.

Uahabismoan oinarritutako erasoak erreinu uahabian. **Berria - Mundua**

wahabita *(orobat uahabita) izond/iz wahabismoaren jarraitzailea*.

Abdel Aziz al-Mokrinek izenpetua zen agiri batek musulmanei manua ematen zien erasoak burutzeko erresuma **uahabitan**. **Berria - Mundua**

Riadek saudiar herritartasuna kendu dio [...] Osama Bin Ladeni, nahiz eta haren sendia erresuma **uahabitako** aberats eta boteretsuenetatik den. **Berria - Mundua**

Ingushetian sartu ziren erasotzaileen buruzagia Magomed levloev zela eta zehaztu zuen hau **uahabita** islamista integrista dela. **Berria - Mundua**

walkie-talkie *iz pertsona bat beste batekin distantzia laburretan komunikatzeko eskuko tresna, irrati uhinetan oinarritua*.

Anastasiok **walkie-talkie** bat atera zuen jakaren poltsikotik. **Aitor Arana**

Goizeko 3etan jadanik mugimenduak ikusi dira, polizia anitz Baionako karriketan, **walkie talkie** -ekin mintzo. **Berria - Euskal Herria**

Lucyk pistola bat eta **walkie-talkie** bat erosi beharko lituzke, eta tiro-eskolak hartu. **Oskar Arana**

Hantxe lurperatzen genuen "osaba Jose", tunela egiten genbiltzanean kanpoko lagunekin komunikatzeko geneukan **walkie-talkie** -a, irrati txiki bat, kanpotik iristen zitzaizkigun panfletoak... eta hainbat ezkutuko tresna eta misterio. **Jokin Urain**

walkiria *iz Europako Iparraldeko jainkosa, gduetan heroi hil-beharrak izendatzen zituena; Europako Iparraldeko emakume gaztea, ilehoria eta luzea*.

-Baaa... zu eta beste bi **walkiria** bidali apaiza tentatzera. **Joxean Sagartzizabal**

"Ene **walkiria**" erraten nioan, ikusiko... **Alberto Ladron Arana**

Bere nobioarekin etorkizunik ez zeukala jakin zuen egun hartan, proposamenezko begiradekin bonbardatu zuen **walkiria** baten semea behar zuen kamarero hura. **Eider Rodríguez**

walkman *iz kasete entzungailu eskuko, tamaina txikikoa, aurikularrekin entzuten dena*.

Stephenek, ingurura begiratu, **walkmana** entzun, kantatu edo are hitz egiten du marrazten duen bitartean. **Xabier Olarra**

Filmaren soinu-banda osorik dauka grabatua, eta etengabe entzuten du **walkmanean**. **Xabier Olarra**

Batzuk irakurtzen ari dira, **walkmana** soinean dute askok. **Harkaitz Cano**

Walkmanak klak egin zuen zinta amaierara heltzean. **Iban Zaldua**

Amaiak **walkman** bateko entzungailuak ziruditenak atera zituen. **Fernando Morillo**

Belarri biak **walkmanaren** aurikularrez estalita agertuko zaizu halakoa hitzordura. **Joxerra Garzia**

Demagun **walkmaneko** pilari tripak atera, eta haietako zuku alkalinoa irentsiz nire buruaz beste egin nahi dudala. **Anjel Lertxundi**

waloniar *izlag/iz Waloniakoa, Waloniari dagokiona; Waloniako herritarra*.

Danilo Di Luca 29 urteko txirindularia **Waloniar** fletxa deitzen den kurtsa irabazi duena. **Herría**

Horrek frogatzen baitu Belgikarrak edo hobeki erraiteko **Waloniarrek** Alemanak bezain ibiltari onak zirela. **Piarres Aintziart**

Flandes Belgikaren estatu zorrari aurre egiteko prest dagoela nabarmendu zuten, **waloniarrak** gauza bera eginez gero betiere. Berria - Mundua
Frantsesek belgikarrei legez egiten die trufa **waloniari** honek gure lagun flandriarrei. Koldo Izagirre

waloniara iz frantsearen aldaera, Walonian mintzatzen dena.

Bruselasan frantsesez hitz egiten da, baina guretzat axolarik duen gauza bakarra da flandesearen lurraldeen eta **waloniaren** lurraldeen arteko muga. Isabel Arrigain

washingtondar izlag/iz Washingtingoa, Washingtoni dagokiona; Washingtingo biztanlea.

Washingtondar [...] Potomak tribuko kidea, bere burua gobernatzearen pribilegioa gobernu onaren abantailaren truke eman zuena. Xabier Olarra

Washingtondar AB Potomak ibaiaren ertzean bizi izan zen Washingtingonen eman zuen denboran. Xabier Olarra

waterpolo iz ur kirola, eskubaloien antzekoa, zarpina jokalariko bi talderen artean igerileku batean jokatzen dena.

Euskadiko **waterpoloko** selekzioaren bosgarren partida zen atzokoa. Berria - Kirola

Euskadiko eta Portugalgo **waterpoloko** selekzioek atzo Galdakaon jokatu behar zuten partida bertan behera geratu zen. Pilota biribila delako, **waterpolokoa** bezala.

Berria - Kirola

watio (orobat watio g.,er.) iz watta.

Bizitzak beste kolore bat zeukan 125 **watioko** bonbillaren argitan. Unai Iturriaga

Iheslarien zain geunden, baina alarma jota guardia mugitzen hasiz gero, 500 **watioko** fokuekin hornitutako dorre baten kontra egin behar genuen tiro etengabe. Rafa Egiguren

watt iz potentzia unitatea, eskuarki elektrizitatean erabiltzen dena.

Kartzela haietan, alegia, 25 **watteko** bonbillak zeuden. Jokin Urain

Adreilu trinkozko putzuzulo batean hormarteratu genuen, hondoan eta alboetan 1.000 **watteko** lau erresistentzia zeuzkala, elektrika-harietara kontagailua baino goraxeagotik konektatuak. Juan Garzia

Milaka **watteko** fokuek argizatutako pasarella batean legez. Josu Landa

Tximista batek 30 mikrosegundo irauten du eta 10 trilioi **watt** sortzen ditu. Gotzon Garate

Miloi bat pertsonak, denak batera hizketan jarrita, sortuko luketen soinuaren energia 15 edo 20 **watt** baino ez litzateke. Irene Aldasoro

Lotan, 80 **watt** ingurukoa da gorputzaren energia-gastua. Irene Aldasoro

Presio aldaketaren intentsitate edo indarra, berez, **wattetan** neur daiteke. Lourdes Oñederra

Xinan, ur erresalba baten egitera doatzi munduko handiena izanen dena: 18 200 mega **watt**-eko elektrika indarra eman beharra du urtegi ikaragarri horrek, herri horrentzat. Herria

web 1 iz Interneteko helbide jakin batean aurkitzen den informazio multzoa.

Begiratu bat ematen zer **web** dauden ikusgarri, oharrari begia atoa: "Gogorrentzat". Iñigo Aranbarri

Web horien sortzaileek bezero berriak erakarri eta haiei eusteko gero eta «trikimailu konplexuagoak» erabiltzen dituztela esan du. Berria - Gaiak

Zenbait kasutan abortatzea irtenbide bat izan daitekeela dio Portugalgo **web** ofizial batek. Berria - Gaiak

Espainiako Auzitegi Gorenak **web** independentziazale baten kontrako kereila onartu du. Berria - Mundua

Han sakatuta, beste web orri batera jauzi egiten du erabiltzaileak; benetako erakundearen antzeko **web** batera. Berria - Gaiak

Duela urte bat **web**-aren diseinua eta edukiak berritu zituzte eta ordutik %10 handitu dira kontsultak. Berria - Ekonomia

Zoaz orain *El Correo*-ren **webera**. Iñigo Aranbarri

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aplikazio hori XML hizkuntzan oinarritutako programa da, eta **web** zerbitzuak sortzeko balio du. Berria - Euskal Herria

Salmentarako **web** zerbitzu bat egin nahi izanez gero, eta horretarako disko baten prezioa jakin nahi izanez gero, SOAP protokoloaren bidez, datu horiek biltzen dituen konpainiarekin harremanetan jar daiteke. Berria - Euskal Herria

Interneten **web** dokumentuak deskribatuta jasotzeko era berria. Berria - Euskal Herria

Irak-eko II. gerra zela eta, izugarri hedatu ziren **web**-log hauek. Txema Ramirez de la Piscina

Beren ordenagailua **web** cam tresnaz dohatua dutenek mundu guzitik segitu ahal izan dute Korrika zuzenean. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Birus batek suntsitu zigun "Zimino lizuna" porno **web**-era jaitziko bideo klipen artean, bazen Ginger Lynn izeneko artista bikain batena. Markos Zapiain

4 web atari (6 agerraldi, 6 artikulutan)

Web-atari berri bat eraikiko da, lau hizkuntzetan, orain arteko web-gunea baino zabalagoa, elkarteeri eta publiko zabal bati idekia izanen dena. Herria

Euskal literaturari buruzko beste bederatzita webgunerekin batera dago Euskal prentsaren lanak Susa argitaletxearen Armiarma **web atarian**. Berria - Harian

Osasunerako eta ingurumenerako kaltegarri izan daitezkeen produktuen zerrenda osatu du Espainiako Greenpeacek eta bere **web atarian** (www.greenpeace.es) jarri du.

Berria - Gaiak

Euskal Herriko metal musikaren berri zabala izan nahi duenak Interneteko Herriko Burdina (www.herrikoburdina.net) **web atarian** dauka informazio iturri nagusienetako bat.

Berria - Kultura

5 web gune ik webgune.

6 web orri (257 agerraldi, 16 liburu eta 154 artikulutan)

Talde supremazista estatubatuar baten **web orrian** jakingarri zehatzak eskaintzen zituzten auto bat errausteko erabili beharreko gasolina dosi doiaz. Aingeru Epaltza

Unibertsitateko ikasgaiak hobeto garatzeko nahiko arrunta da egun **Web-orriak** eta Web-guneak eratzea -beren e-mail helbide eta guzti-. Askoren artean

Elkarteak martxan jarri berria duen **web orriak**, duarik gabe, are eskurago jarriko ditu aurrerantzean dokumentuok. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jendeak zer gordetzen duen bere laneko disko gogorrean, zer mezu klase hartzen eta bidaltzen dituen bere posta elektronikoa, zer **web orri** bisitatzen dituen. Aingeru Epaltza

Batetik jokoak eta programak pirateatuz, eta bestetik **web orriak** diseinatuz, diru mordoak eskuratzen du. Antton Olano

Web orriaren helbidea eskatu diot adiskideari. Iban Zaldua

Neska bankuko **web orrian** sartu eta Mutilaren jaiotza data saiaturko du kodean. Antton Olano

Hainbat **web orri** eta proiektuen bidez sortutako fanzinea da. Berria - Kultura

EUSTAT (**web orria**): Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoari buruzko Estatistikak. Berria - Euskal Herria

7 (izenondoekin)

Lizarra ikastolak Nafarroa Oinez bestaren **web orri** berria martxan jarri du, www.nafarroaoinez.net helbidean. Berria - Euskal Herria

Web orri segurueta helbidea http:// hasten da beti. Berria - Gaiak

Blog-ak **web orri** dinamikoak dira, eta ikasleekin lan egiteko aukera zabalak eskaintzen dute. Berria - Euskal Herria

Pare bat minutu baino ez dira behar **web-orri** pertsonalizatu hori egiteko. Txema Ramirez de la Piscina

Italian duen *gibo fans* **web orri** osatuaren bitartez erantzun du. Berria - Kirola

Parte-hartzea sustatu asmoz, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez zein ingelesez idatzirik dagoen **web orri** erraza eta interaktiboa egin dute. Berria - Euskal Herria

Ordenagailu bat, **web-orri** sofistikatuago batekin. Unai Elorriaga

Sare elektronikoaren eta sakelakoen bitartez **web orri** pornografikoetara sartzeko erraztasunak ditu jendeak. Berria - Gaiak

Web orri suizidak deitutako bidez, taldean suizidatzeko prest dauden lagunekin jartzen dira harremanetan Internet zaleak, Poliziaren arabera. Berria - Gaiak

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Zolari buruz gehiago jakin nahi duenak bertan aurkituko du **web orri** zerrenda guztiz interesgarria. Karlos Zabala

9 *web orrialde* (36 agerraldi, 6 liburu eta 23 artikulutan) *web orria*.

Kultura deitzen dugun horren adierazpen gehienak, liburukak, diskoak, bideoak, **web orrialdeak** ... horrela jasotzen ditugu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Web orrialde desberdinetako helbideak gehitu zituen Mikelek: adibidez "lapelotavasca" edo "euskonews" delako webguneak. Ramuntxo Etxeberri

Dena den, **web orrialde** batetik artxiboren bat norberaren ordenagailura jaitea delitua dela argitu du. Berria - Harian

Adingabeei zuzendutako **web orrialde** gehienak ez direla seguruak esan du Kontsumitzaileen Aferez arduratzen den Europako Ikerketa Zentroak. Berria - Gaiak

Interneten dauden web zerbitzariak etengabe ugalduz doazela eta 2000. urtean, 2.000 milioi **web orrialde** baino gehiago daudela. Iñaki Heras

webgune (561 agerraldi, 7 liburu eta 329 artikulutan; orobat **web gune** 49 agerraldi, 3 liburu eta 36 artikulutan) 1 iz interneteko gune birtuala, non pertsona edo erakunde batek informazioa eskaintzen baitu.

Gutxi berru **webgune** bat zabalduko dute, eta han ere sinadurak bilduko dira. Berria - Euskal Herria

Haur pornografiako 62 **webgune** itxi dituzte. Berria - Gaiak

Agiriaren berri *Der Spiegel* aldizkari alemaniarren **webguneak** eta *Elaph* albiste zerbitzu arabiarrek eman zuten aurrena. Berria - Harian

Osasunak bere **webgunean** partidak zuzenean jarraitzeko sistema aurkeztu zuen atzo. Berria - Kirola

Osasunaren **webgunean** sartuta, harridura: euskaraz klikatu, eta atalen izenak bakarrik agertuko zaizkizue euskaraz. Berria - Kirola

Horiek horrela, Fronte Zapatistaren **webgunea** itxita dago eta San Cristobalen zenbait telefono ez dabilta. Berria - Harian

'Eskuldun Ona', 'Argia', 'Euzkadi' eta 'El Día' aldizkariak 36ko gerra hasi aurretik argitaratutako euskarazko orrialdeak jaso dituzte 'Euskal prentsaren lanak' **webgunean**.

Berria - Harian

Azpeitiko Euskara Patronatuaren *Erabili.com* **webgunean**, itzulpen bitxia irakurteza begitandu zaio. Iñigo Aranbarri

Mezuaren benekotasuna frogatu ez den arren, **webgune** berean azaldu izan dira orain arte Basaieven komunikatuak. Berria - Mundua

Eta zergatik ez **webgune** bat sortu, Euskal Herriko erresistente eta deportatuen lekukotasunekin [...]. Eneko Bidegain

Berri hauek La Vanguardia (1999-04-07) eta El Mundo (1999-04-06) egunkariak, besteak beste, emandakoetatik hartuak, eta konpainiako **Webgunetik** zuzenean. Juan

Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Interneteko **webgune** eta leihoak ugaltzen doaz, salmenta eskaintza gero eta zabalagoa eta aberatsagoa delarik. Pello Zabala

Webguneen edukiak biziki haserretu ditu Kanputxeako agintariak. Berria - Gaiak

Sarrera horiek telefonoz eta **webgunearen** bidez saldu dituzte. Berria - Kirola

Webgunea: http://www.cancerinfantil.org/aspanafoha/home.htm. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendebaldeko Saharako gatazkari buruzko informazioa eskaintzeko **webgune** berri bat sortu dute: www.saharatik.com. Bere **webgune** ofizialean ohar horrek azaltzen du zein den egoera. Berria - Harian

Al Kaedarekin lotutako taldeak **webgune** islamista batean argitaratu zuen atentatuen aldarrikapena. Berria - Harian

Webgune interaktiboa osatu nahi dugu, baina horretarako herritarren ekarpenak eta parte-hartzea ezinbestekoak zaizkigu, hori gabe ez baitago Gazte Topagunerik. Berria - Euskal Herria

Sarean barna dauden hainbat **webgune** alternatiboren artean *Z Communications*. Txema Ramirez de la Piscina

Elaph arabierazko **webgune** laikoak. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

Shoah-ri buruzko **webgune** zerrenda luze batera heltzen da. Eneko Bidegain

Aldizkari, irratia eta **webgune** proiektuak 13 lanpostu zuzen eta 48 kolaboratzaile ditu. Berria - Euskal Herria

- VICENT PARTAL x vilaweb albiste **webguneko** zuzendaria. Berria - Harian

weblog (orobat *web-log* g.er.) iz Interneteko webgunea, non ohar, istorio edo artikulua argitaratzen baitira. **ikblog**.

Weblog bat egiteko programarik erabilienak helbide hauetan topatuko dituzue: [...]. Txema Ramirez de la Piscina

Weblog askotan gogoeta pertsonalak, ipuinak eta saiakera txikiak topa daitezke. Txema Ramirez de la Piscina

Zerbitzu plataforma bat izango da: posta elektronikoa, Interneteko guneen itzultzaile bat, **weblog** bat, txosten bereziak PDF formatuan. Berria - Gaiak

Sustatu.com, lehen **webloga** Zinemaldian. Berria - Kultura

Weblog sareak erditu duen beste hitz-elkarketa xelebrea da: Zer den hori? Txema Ramirez de la Piscina

Irak-eko II. gerra zela eta, izugarri hedatu ziren **web-log** hauek. Txema Ramirez de la Piscina

webtoki iz webgunea.

Zoriak egun haietako batean anorexiaren aldeko **webtoki** bat ipini zuen nere begien bistan. Iñaki Segurola

Eta hargatik esisti -ez bizi!- liteke euskal hizkuntza bezalako mustro bat, baina ez euskarazko hizkuntza; erret akademiaren **webtokiko** atariko atean bertan esplikatzeko edo argitzea da euskara... "euskal hizkuntza" dela! Iñaki Segurola

webzale izond weben zalea dena.

Lagun **webzale** batek orrialde bitxi baten berri eman dit duela gutxi. Iban Zaldúa

welfarismo iz gizarte ekintza kontzertatua.

Kritika honek dio **welfarismoa** ongizatearen kontzepzio utilitaristan oinarritzen dela. Badira bai **welfarismoak** herritartasun kontzeptu pasiboa sustatzen duela eta, estatu babesle erraldoiaren kontrako kritika ideologiko interesgarriak, baina Ongizate Estatuari egiten zaizkion kritika nagusiak -azaletik behintzat- ez dira ideologikoak, aitzitik, kritika horiek nolabaiteko ekonomia arrazionaltasunaren izenean egiten dira. [Iñaki Heras](#)

western 1 iz zinema-generoa, iparramerikar mendebaldean kolonizazioaren garaian gertatzen diren abentura filmek osatzen dutena.

Wisec genero guztiak jorratu zituen: zinema beltza (*The captive city, Odds against tomorrow*), **westerna** (*Blood in the moon*), zientzia fikzioa (*The day the earth stood still, The Andromeda strain*), gerra generoa (*Run silent, run deep*), [...]. [Berria - Harian](#)

Ongitxo genekien hamaika **western** filmatu direla ingurumari hauetan. [Patxi Zubizarreta](#)

Telebista piztu eta *The Outriders* izeneko film bat ikusten hasi ginen, 1950eko **western** bat. [Oskar Arana](#)

Egunkari haietako mundua ez zitzaidan batere ezaguna egiten; **western** bat bezain arrotza zitzaidan. Irudien gosea dute dagoeneko, fikziozko istorio bat ikusteko irrika, dela **westerna** dela amodiozkoa. [Juan Kruz Igerabide](#)

Belardian zehar cowboy itxurako gizon bat doa oinez, **western** batetik ateratakoa ematen du bere sonbreiurekin, bere alkandorarekin, bere bakeroekin eta bere uhalezko gerri kartuxeran daraman errebolberrarekin. [Joseba Sarrionandia](#)

Baina igandean bai, **western** bat ikusi genuen. [Joseba Sarrionandia](#)

2 (izenondoekin)

Greg, egia da, gustura egoten zen bere telesail eta **western** gogokoenei begira. [Xabier Olarra](#)

Itxuraz **western** soil bat dena, bilakatuko da izana eta ukanaren arteko gogoeta gaia. [Herria](#)

Western handiak eta Bronstonekin egin zituen ekoizpen erraldoiak. [Berria - Kultura](#)

-Dena prest, neska-mutilak? -goratu du boza, gaztetako **western** zaharretako protagonisten histia nabarmena eginez-. [Aingeru Epaltza](#)

Bai film komiko eta musikaletan bai **western** dramatikoetan. [Berria - Kultura](#)

John Hillcoatek zuzendutako *The proposition* **western** liriko eta bortitza ere ikusi ahal izango da Fanten. [Berria - Kultura](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gauetz, ohean geundela, geure gelatik entzuten genituen maiz kaleko tiro-hotsak, **western** -filmetan bezala. Kartutxera handia gerrian - **Western** filmetan bezala- txapel borobil bat argizaritua euriaren babeserako eta han idatzita "Cazadores de Guipúzcoa". [Gotzon Garate](#)

Liburu bakarrak aitak bolada batean irakurri ohi zituen **western** nobelak ziren. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

What the toll tells paraje galdu batean abiatzen da, espageti **western** klasikoan moduan. [Berria - Kultura](#)

whiskey ik **whiski**.

whiski (125 agerraldi, 36 liburutan; orobat **whisky** 244 agerraldi, 56 liburu eta 12 artikulutan, **wisky** 15 agerraldi, 3 liburutan eta **whiskey** 6 agerraldi 5 liburutan) 1 iz zekale, garagar edo arto alez, batez ere Britaniar uharteetan eta Ipar Amerikan egiten den edari bizia.

Hau vodkaren lurraldea da, amaitu dira **whiskiak** eta beste alkoholak. [Edorta Jimenez](#)

Whiski apur bat prestatuko dizut sodarekin. [Mirentxu Larrañaga](#)

Neskak basoa luzatu zuen eta gizonak **whiskia** zerbitzatu zion. [Koro Navarro](#)

-Atera **whiskia**, Julia -esaten zion. [Alberto Barandiaren](#)

Uste dut **whiskiak** nahastu ninduela, baraurik nengoen eta ez dut edateko ohiturarik. [Joxean Agirre](#)

Hori zerabilen gogoan **whiskia** hurrupaka edaten zuen bitartean. [Koro Navarro](#)

Whiskiari tragotxo jo zion. [Edorta Jimenez](#)

Eskoziako **whiskiaz** blai eginda oheratuko ez banintz, ez nukeen begirik bilduko. [Mirentxu Larrañaga](#)

Aurreko gaueko **whiski** botila eskaini zion, baina uko egin zion buruaz. [Ibon Uribarri](#)

Whiskyaren zapore konfortagarria suma zezakeen eztarrian. [Harkaitz Cano](#)

Whiski -eta-soda edaten ari ginen gu denok. [Edorta Jimenez](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tabako USAtarra, **whiski** eskoziarra, ardo frantsesa eta nik dakita ba zer ez zegoen, itxuraz, han. [Edorta Jimenez](#)

Whiski betea eskatu nuen. [Xabier Montoia](#)

Garrafoiko **whiskia** zen muga-ertzeko *duty-free* hartan erosi nuena. [Edorta Jimenez](#)

3 (neurriekin)

Azkenean, bi edontzi **whiski** eta botila erdi ardo edan ostean, hasi zen aienatzen goibeltasuna. [Oskar Arana](#)

Pinta eta erdi eskoziar **whiski** eta bi botila ardo beltz erosi nituen neuretzat. Berarentzat pare bat hazbete **whiski** atera zuen beste edontzi batean eta edan egin zuen. [Oskar Arana](#)

Beste hurrupa bat eskoziar **whiski**. [Oskar Arana](#)

Barnean, hogoi mila botela **Whisky** eta holako edari tornuarentzat paper xuxenik ez. [Herria](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontua zen ez zuela **whiski** -tantarik ere arasan. [Mirentxu Larrañaga](#)

Nirea, **whiski** ttanta batekin. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ez du likorerik nahi, baina onartzen dio kafean **whiski** -zorrotadtxo bat. [Oskar Arana](#)

Sukaldera joan eta **whiski** zurrusta bat atera zuen baso batera. [Koro Navarro](#)

Whisky hatsa zerion. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ohiko bezero lagun baten izena aipatze hutsarekin, **whiski** -motarik bitxieta eta edonolako ginebra-aldaera egin berria eskura zitzaizkion. [Mirentxu Larrañaga](#)

Zerbitzariari bi **whisky** -kopa eskaturik, bat luzatu nion Adari. [Anjel Lertxundi](#)

Hegazkinean harturiko **whiski** botilatxoak maletako poltsiko batean behar zuela. [Xabier Montoia](#)

Aste bat lehenago Dantxarinean izanak ziren Ricard eta **Whisky** botila zenbait erosten. [Daniel Landart](#)

Txoferra hurbiltzen duk barean erosi berri duen **whisky** kaxa edo tabako kartonak kamionaren kabinan altxatzera. [Koldo Izagirre](#)

Bere **whisky** -gauetan, *niquer* hitzaren esanahiaren jakitun, pentsatu ahal izango zuela azkenean ongi izorratu zituela ordenako moja zintzoak. [Joseba Urteaga](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Eta festa ondo amaitzeko, malta-**whiskya**, noski. Iban Zaldúa
Ez baitzuten zilegi lurragi Zuriei saltzea kristalezko perlen eta patata-**whiskyaren** truke. Xabier Olarra

6 baso bat whisky.

Jendez betetzen ari zen tabernako zerbitzariari neska bi **whiski** gehiago manatu zizkion. Itxaro Borda
Atsedena **whiski** txiki bat edateko. Karlos Zabala
Soberan erretako zigarroak eta neurririk gabe edandako **whiskiak** tarteko. Josetxo Azkona
Eta **whiskyak** joan, **whiskyak** etorri- eztabaida amaigabe batean murgildu ziren. Iban Zaldúa
Lehendabiziko **whiskya** bi zurrutadatan edan nuen. Migel Angel Mintegi
Bera **whiski** bat prestatzen hasi zen, zerbait garrantzizkoa esan behar zuenean egin ohi zuen moduan. Joxean Agirre
Marro begira zegokien, beti egon ohi zen bazter batetik, eskuan **whiskia** eta begiak dir-dir zituela. Juan Kruz Igerabide

whiskitxo *(orobat whiskytxo)* iz adkor basotxo bat whisky.

Niri, **whiskitxo** bat, Jack Daniels. Unai Iturriaga
Hiru **whiskytxo** burura igoak zituen eta Gallaherren puru sendoak adimena nahastu zion. Irene Aldasoro

whiskizale *(corpusean whiskyzale soilik)* izond whiskiaren zalea den pertsona.

Eta ikusi besterik ez dago Amerikar **whiskyzaleak** zein aise bota zituen espainiar neurritsuak beren lurretatik. Xabier Olarra
-Frenatu genuenean, mozkorren bat izango zelakoan jarri ginen, oinetan indarrik ez eta seko eroritako **whiskyzaleren** bat. Joxemari Urteaga

whisky ik whisky.

whist 1 iz ingeles karta-jokoa, frantses kartekin jokatzeko dena, oso erregela sinpleak dituena.

Luze gabe, **whistean** jokatzeko kartak eman zizkioten Txixikovi, eta gizalegeko buru-makurtua eginez hartu zituen. Jose Morales
Arrandegira edo edaritegira inguratu, begi-keinua egin, eta janurreko ederra antolatuko digu segituan!, eta guk, bitartean, **whistean** egingo dugu. Jose Morales
Bisitariak **whistean** ari ziren bitartean. Jose Morales
Bazkalostean **whistean** hasi, eta jokoan aritu ziren arratsaldeko hiruretatik gaueko ordu biak arte. Jose Morales
Oro har, jende onak ziren, abegitsuak, eta berehala hartzen zuten lagun mintzat haiekin ogia eta gazta jan edo arratsalde bat **whistean** ematen zuen edonor. Jose Morales
Eta, zuk, gogoan al duzu zer-nola **whist** karta-jokoan ari zirelarik, gure aita sutan jartzen zen galtzen bazuen? Mirentxu Larrañaga

2 (hitz elkartuetan)

Erabat ahaztu zitzaizen **whist** -partida; gai oroz eztabaidatu eta mintzatzen ziren oihuka Jose Morales

whistle iz letoizko txistua, sei zulokoa.

Victor Gomezek (baxu elektrikoa eta kontrabaxua), Ruben Isasik (trikitia, txirulak, txalaparta eta perkusioa), [...] eta Xabier Valle (alboka,*uilleann pipes*, gralla eta **whistlea**) osatzen dute *Kukuma*. Berria - Kultura
Gaita, soinu txikia, perkusioa, bouzoukia, txalaparta, txirula, mandolina, **whistlea**, gitarra. Berria - Kultura
Alboka, **whistlea**, karamiloa eta txirula. Berria - Kultura

winchester iz Winchester markako erriflea.

Don Jaime izeneko gizon beltzaranak **winchesterra** eskuan zuela jarraitzen zuen. Bernardo Atxaga
Lau gizon **winchester** bana besoetan zutik, negu giroko western batekoak bailiren, aurrean hiru gorpu biluzi ahuspez dituztela. Joseba Sarrionandia
- Izerditan neuzkan eskuak; **Winchester** markako errifle erdiautomatiko bat neraman, eta indarrez heldu nion. Rafa Egiguren

windsurf iz surfaren mota, surf ohol beladun batekin egiten dena.

Erreskate taldeek gizonaren **windsurfeko** ohol a eta oihala aurkitu zituzten atzo, kostatik hamar miliatara, gizonetako **windsurf** egiten zuen lekutik hogeik kilometro ingurura. Berria - Euskal Herria
Bilboko gizon bat desagertu da Lanzaroten, **windsurf** egiten ari zela. Berria - Euskal Herria

windsurfzale izond/iz windsurfaren zalea dena.

Bela zuri urrunek eta **windsurfzaleen** koloretako hurbilagoek han-hemenka eteten dute tiralineaz marraztutako horizontearen ertz infinitua. Xabier Mendiguren Elizegi

wisky ik whisky.

wolffiar izlag Ch. Wolff matematikari eta filosofoarena, Wolffi dagokiona.

Filosofiaren sistema bat, adibidez, **wolffiar** sistema benetan ikasi duenak, oinarri-esakune, argiketa eta frogak denak irakaspen-erakin osoaren sailkaketarekin batera buruan dituen eta dena behatzekin zenbatu ahal izan duen arren, ez du **wolffiar** Filosofiaren ezagutza historiko osoa besterik lortzen; eman zaion adina daki eta juzgatzen du. Ibon Uribarri
Leibniz jaunak eskakune hau oinarri-esakune berri bati dagokion hotsarekin iragarri ez zuen arren, dena dela, baieztapen berrietarako erabili zuen eta bere jarraitzaileek izendatuki sartu zuten leibniziar-**wolffiar** irakaspen-eraikinean. Ibon Uribarri
Filosofia leibniziar-**wolffiarrak**, beraz, gure ezagutzaren izaeraren eta jatorriaren azterketak erabat zuzengabea den ikuspuntuaren menpean jarri ditu. Ibon Uribarri

wolfram *(orobat wolframio)* iz gai bakuna, molibdenoaren saileko metal astuna (*W* edo *Tu*; at. z. 74). ik **tungsteno**.

Fausto eta Juan Jose Elhuyar anaiak, laborategian **wolframa** isolatu zuten lehen zientzialariak, helburu militar horien zerbitzuan aritu ziren lanean. Berria - Kultura

-Hari horiek **wolframezkoak** dira -diotsot sabaiko lanpara seinalatuz-. Koldo Izagirre

Gure burdina, gure **wolframioa**, gure lehengai guztiak, Alemaniako arma-lantegietara joan ordez, Frantzia eta Ingalaterrara joanen lirateke... Alberto Ladron Arana

wolframio ik **wolfram**.

wolof

1 **wolof hizkuntza** wolofera.

Wolof hizkuntzara itzuli dugu komedia, eta herri guztiak hartu du parte, paper nagusietarako hiru aktore paregaberekin batera. Berria - Kultura

Gero kantu eta dantzaren aldi betiko Otxalde eta Afrikako talde batekin, ahantzi gabe Afrikako erran zaharrak gazte batzuek irakurturik frantsesez eta **Wolof hizkuntzan**.

Herria

wolofera iz afrikar hizkuntza Niger-Congo taldekoa, Senegalen eta Gambian mintzatzen dena.

Lanbidez abokatua den Lakaren bitartez jakin ahal izan dugu **woloferaz** mintzatu zitzaizkiola Markinatik heldutako itzultzaileari, eta bi egunera libre utzi bazituzten ere, jabetza intelektualaren aurkako delitua egotzi dietela. Iñigo Aranbarri